



Inposaketa EAEn



Hezkuntzako berriak



Hautaprobak

hezberri

32. alea
2009ko
Abendua



CELAÁK INPOSAKETA BERRIA JARRI DU MARTXAN

Isabel Celaá Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Sailburuak bota du bere ikasturteko inposaketa. Ziurrenik azken hamarkadetan euskal hezkuntzaren aurka egon den erasorik handiena, hizkuntza, kultura eta hezkuntza komunitatea iraindu dituelarik. Hezberriren ale honetan azterketa txiki bat giten dugu.

Gure irakurketa hiru ikuspegi ezberdinetik luzatu nahi dugu, beraz. Lehenengoa hizkuntzarena izango da, bigarrena Euskal Curriculum eta edukiei begirakoa eta hirugarrena "Educación por la paz" izeneko gaiaren inguruan. Azkenik EHBek deialdia eta konpromisoa ere izango duela aipatuko dugu ale honetan.

Hizkuntza eta ereduak

Ereduen politikak ez duela funtzionatu orain dela urte nahiko dakite Eusko Jaurlaritzan. Celaák berak badaki A ereduak ez duela euskalduntzen eta momentu honetan elebitasuna (eta zenbait kasutan baita eleaniztasuna ere) bermatzen duen eredu bakarra D eredu dela. Ereduen politika honek Euskal Herri euskalduna lortzea ekidin du eta urtero milaka eta milaka gazterentzat arazo bat suposatzen du.

Celaáren ustetan “gurasoen erabakitze eskubidea” bi hizkuntza ofizialak ezagutu behar direla dioen legearen gainera dago. Hau da, gurasoek erabaki dezakete ea legea betetzen ez duen eredu batean matrikulatu euren haurrak edo ez. Baina ez du esaten “gurasoen erabakitze eskubide” horrek etorkizunean haurrak zein hizkuntzatan hitz egingo duen bideratzen duela, ez du kontutan hartzen haur hori euskal herritarra dela eta bertako hizkuntza euskara dela.

Gehiengo soziala D ereduaren alde dago. Hori argi geratu da matrikulazio datuei erreparatuta: gutxiengo bat da gaur egun A ereduaren aldeko hautua egiten duena, kasu askotan immigrante berrien seme alabak. Are eta gehiago, immigrante berrien herenak baino ez du aukeratzen eredu hau. A eredu mantentzeak legearen aurka joateaz gain sekulako diru galera suposatzen du.

Hizkuntzen “berdintasuna” nahi dutela diote. Bada, nahiko genuke! Momentu honetan euskara gazteleraren azpitik dago eta euren neurriekin hala izaten jarraituko du. Euskal herritarren gehiengo elebiduna izan dadin baldin bada euren helburua (hori baita bi hizkuntzek berdintasuna izatea) horrela badakite ez dutela lortuko. Ez da, noski, euren helburua. PSE-PPk argi eta garbi dute hizkuntza inposaketa nahi dutela. Eta PSOEek azaldu beharko luke zergatik egiten duten politika hau Hego Euskal Herrian eta kontrakoia Katalunian, Balear Uharteetan edo Galizan.

“Euskal Herria” terminoa eta Euskal Curriculumuma

Patxi Lopezek berak esan zuen Parlamentuaren aurrean: “Yo soy de la tierra de Axular” (Ni Axularren herrikoa naiz). Axular Nafarroan jaio eta Lapurdin hil zen. Bere bizitza osoa lapurteraz egiten pasa zuen. Ziurrena da Patxi Lopezek ez dakiela nor zen Axular, ezta Isabel Celaák ere. Axular ekarri nahi dugu gogora bereziki lurraldetasuna ordezkatzeko duela, eta ez kontzeptu “kultural” eta “linguistikoa” bat. Ameriketako jatorrizko herri gehienentzat lurra eta hizkuntza gauza bera dira. Lurraldetasuna hizkuntzarekin lotzen da.

Berriro ere aipatu behar dugu gehiengo eta gutxiengoaren ideia bera. Celaák Euskal Herria kentzea proposatu du eremu juridiko-politikoaren izendatzerakoan, horrek “doktrinatzeko” suposatzen zuelako eta “akordio zabalak” nahi dituelako. Esan beharko litzateke gehiengo batek Euskal Herria berez badela uste badu orain gutxiengoak hori horrela ez dela esatea ez ote den “doktrinatzeko”. Euskal Herria noiz, nor eta zertarako erabili daitekeen inposatzea ez al da errealitatea “manipulatzeko” eta herritarrek “adoktrinatu” nahi izatea? Galdetu nahiko genuke Celaárentzat ea “akordio zabalak” lortzea gehiengoak nahi duenaren aurka jotzea ote den.

Orain dela egun batzuk Nafarroan UPNk “Euskal Herria” terminoa eskoletatik ezabatzea proposatu zuen. Orain PSE-ren unea iritsi da. Biak ala biak paktu berdinen parte dira: Euskal Herria desagerrarazi eta herri honen gehiengoaren nahia ukatzeko PSOEek eta PPk duten paktua. Euskal Herria badela erakusten duen paktua.

Curriculumaren aldaketa hau ez dago, hala ere, ideien munduan bakarrik. Arazoa ez da Euskal Herria estatu bat ez denez hori ezin dela irakatsi; arazoa gure herriaren historia ezabatu nahi dutela da. Izan ere Nafarroa Euskal Estatu izan zela ezkutatu nahi dute. Nafarroa armen indarrekin konkistatu zutela ezkutatu nahi dute. Noizbait herri, hizkuntza eta kultura izateaz gain Europako estatu izan garelako ez dute irakatsi nahi.

Aurreko Gobernuak kritikatu genuen Euskal Curriculumaren garapena ez zuelako aurrera eramanez eta horren ordezkari Euskal Curriculumuma izena zuen LOEren garapena bat egin zutelako. Aldaketa hori ez genuen uste nahikoa zenik gure hezkuntza eskubideak errespetatuak izan zitezkeen, baina honako atzerapausoa tamalgarria da. Gure herriaren gehiengoak Euskal Herria ikasi behar dela dioela uste dugu. Gehiengo horrek egoera honi erantzun behar dio!

“Educación por la Paz”

Hezkuntzaren gain utzi dute euskal gatazka politikoaren iraupena. Lotsagarriak! Ikasgai eta gai berriak Hezkuntza Komunitatearekin eztabaidatu behar dira. Irakasle, hezitzaile, guraso, ikasle, ikastetxei eta pedagogoei entzun behar zaie. Eta kasu honetan ez da hala egin, noski. Baina oraindik larriagoa dena: gurutzada batetik abiatzen da ikasgai hau; ez dio eskolak be-

netan duen behar bati erantzuten.

Ikasgai horretan proposatu daitezkeen eduki batzuk eskolan ikastearren alde bagoa ere ez dugu uste proposamen pedagogiko osorik gabe aurrera eramanez daitezkeenik. Izan ere “onak” eta “txarrak” dikotomian oinarritzen den errealitatearen irakaspenek hobekuntzak baino mina ekar dezakete, bereziki gatazka politikoaren modu batean edo bestean sufritu duten ikasle, hezitzaile eta gurasoentzat.



IKASLEEK MARRA GORRIAK MARKATU DITUZTE



Azaroaren 17an Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Ospakizun honek garrantzi berezia du Euskal Herrian. Izan ere, 1988an Ikasle Abertzaleak sortu zenean lehenengo mobilizazioa egun honekin batera deitu zuen. Denborarekin eguna berreskuratu da eta Europako Ikasle Forotik aurrera mobilizazio ugari egiten dira azaroaren tesuinguruan.

Aurten IAK deituta "marra gorriak" markatzeko deialdia egin zuten. Ikasle Egunetik bueltan ikasturteko lehenengo mobilizazioak izan dira. Euren webgunean jartzen dutenez Gaur, Ikasle Nazioarteko Eguna izanik, mobilizazio ugari izan dira eskola eta fakultateetan. Elkarretaratzeak, asanbladak, manifestazioak, margo-
ketak, marra gorri markaketak, parodiak eta bestelakoak egin dira goizen goiz hasita."

Guztira 1.000 ikasle baino gehiago kalera atera zirela adierazi zuen IAK eta hainbat diagnostiko burutzeko ere probestu zuten eguna.

Informazio gehiago Interneten

MOBILIZAZIOA LEIOAN CELAÁren INPOSAKETA SALATZEKO

Hilabete honetan Celaa Hezkuntza Sailburuaren bidez ezagutu diren hezkuntza alorreko aldaketen larritasuna salatzeako kontzentrazioa burutu zuen EHBek Leioako Campusean. Bertan 70 ikasle, irakasle eta ikerlari inguru batu ziren eta Hezkuntza Sistema Nazionala alde lan egiteko beharra agerian geratu zen.

IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETU BERRIA NAFARROAN

Nafarroako Gobernuak Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretu berria egin du. Hori dela eta LAB, IA eta Sortzen-Ikasbatuazek adierazpen bateratua egin dute:

"Ikasleen eskubide-betebeharrak eta ikastetxe ez-unibertsitarioetako elkarbizitza arauak ezarri nahi dituen Foru Agindu" egitasmoa dela eta:

Ikasleen eskubide-betebeharrak eta ikastetxeetako elkarbizitza arauak ezartzeko Foru Agindu egitasmoaren ibilbidea ezaguna zaigu 2009ko martxoan Nafarroako Gurasoen Mahaian aurkeztu zutenetik. Lehenengo zirriborro honi hainbat emendakin aurkeztu izan ondoren, bigarren zirriborro bat jaso dugu bai SORTZEN IKASBATUAZEn eta bai LAB sindikatuan, Nafarroako Eskola Kontseilura eraman aurretik iradokizunik izango bagenu jakinarazteko eskatuz. Gai honetan azpimarratzekoa da, jada lehenengo zirriborroarekin hasita, hezkuntza komunitatearen arteko eztabaidarako tartarik ez dela egon, bakarrik jada gauzaturiko proposamenarekin inguruan ekarpenak egiteko aukera mugatuz.

Azken zirriborro honen oinarriak izaera punitiboa du erabat. Sor edo aurreikusten dituen hainbat egoerari erantzuna, orohar, zigor araudia da. Eskubideak baino betetebeharrak aipatzen dira eta modu bakan eta sinbolikoan besterik ez dira aipatzen konziliazioa edo eta tartekaritza bezalako printzipio hezitzaileak.

Jarraitu irakurtzen



“Hautaprobak eta Baxoa eztabaidagai” dokumentua Durangon eta sarean

Joan zen ikasturteko ekainan eztabaida burutu genuen Bilbon hautaprobak, selektibitatea eta baxoaren inguruan. Bertan EHBEk STEE-EILAS, LAB eta Ikasle Abertzaleakeko kide bana gonbidatu zituen, bakoitzak bere iritzia (pertsonala edo taldearena) plazara zezan. Eztabaida horren ondorioz dokumentua egin dugu, nahi duenak jaitsi eta inprima dezan, sarean ikusi edo, nahi izanez gero Durangon Sortzen-Ikasbatuaz edo Hikasiren postuetan erosi dezan.



Dokumentuan batez ere hiru ardatz ikertzen dira hautaprobak eta baxoaren gaineko eztabaida egiterakoan: ikuspegi politikoa, ikuspegi pedagogikoa eta ikuspegi soziala.

Izan ere eztabaidan parte hartu zuten 3 ordezkariak eta EHBEko kideek ikuspuntu berdinen gaineko iritzia eman zuten.

Informazio gehiagorako:
<http://www.euskaleskola.org>



Argazkia: One Laptop per Child

CC
SOME RIGHTS RESERVED



Hezberri Euskal Herriak Bere Eskolaren hila-
 tekaria da. Bertan dauden eduki guztiak edo ata-
 lak libreki partekatu eta zabaltzeko eskubidea
 duzu beti ere honako baldintzak betetzen badi-
 tuzu:

- Jatorria aipatzea.
- Era berdinean partekatzea.

ehbe@euskaleskola.org